

Ebazpena: R035/2023

Espedientea: 20/2017

Vitoria-Gasteizen, 2023ko apirilaren 20an.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeak, Violeta Ruiz Almendral batzordeburu andreak eta Sofia Arana Landín batzordekide andreak eta Javier Muguruza Arrese batzordekide jaunak osatutakoak, hau erabaki du:

ERABAKIA

Bizkaiko Foru Aldundiak (aurrerantzean, BFA) Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren (aurrerantzean, ZAEA) aurrean planteatutako gatazkari buruzkoa, DPISAren 2012tik 2014ra bitarteko ekitaldietako —biak barne— lan-etekinen atxikipenak eta konturako diru-sarrerak ikuskatzeko eta ordainarazteko eskumena nori dagokion zehazteko. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da, 20/2017 espediente-zenbakiarekin.

AURREKARIAK

1.- DPISA merkataritza-sozietate bat da, Bizkaian du egoitza fiskala eta haren jarduera nagusia industriarteko handizkako merkataritza da (meatzaritza eta kimika izan ezik) beste produktu, makineria eta beste inon sailkatu gabeko materialekin (Ekonomia-jardueren gaineko zergaren 617.9 epigrafea).

DPISAk 2012, 2013 eta 2014ko ekitaldietan zenbait jasotzaileri ordaindutako lan-etekinengatik egindako atxikipenak ordaindu zizkion BFARI.

2.- 2017ko martxoaren 21ean, ZAEAk 2012tik 2014ra (biak barne) lan pertsonalaren etekinengatiko atxikipenak eta konturako diru-sarrerak itzultzeko eskaera helarazi zion BFARI (44.697,76 euro, 33.757,48 euro eta 60.225,86 euro, hurrenez hurren); izan ere, ulertzen zuen ZAEARI dagokiola ordainarazteko eskumena, kontuan harturik atxikipenak egin zitzaizkien langileek atzerrian eman zituztela zerbitzuak.

3.- BFAk inhibizioa eskatu zion ZAEARI 2017ko maiatzaren 5ean, eta ZAEAk 2017ko maiatzaren 31n erantzun zion errekerimenduari, hartarako eskumena zuela berretsiz.

4.- 2017ko ekainaren 27an, BFAk gatazka planteatu zuen Arbitraje Batzorde honetan, eta prozedura arruntaren bidez izapidetu da. Beraz, izapidea bete da, ZAEAk alegazioak egin eta dagozkion frogak eta dokumentazioa aurkeztu eta proposa ditzan. ZAEAk izapide hori betetzeko epea luzatzeko eskatua zuen, baina, azkenean, amore eman du, eta, beraz, onartu du BFA eskumenduna dela DPISAk ordaindutako lan-etekinengatiko atxikipenak eta konturako diru-sarrerak ordainarazteko.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena

Arbitraje Batzordeak du gatazka hau ebazteko eskumena, Ekonomia Itunaren 66. artikuluan xedatutakoaren arabera, zeinak Arbitraje Batzordearen eginkizunak ezartzen baititu:

a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkak ebaztea, bai tributu itunduen lotuneen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, sozietateen gaineko zergaren edota balio erantsiaren gaineko zergaren baterako tributazioaren kasuetan.

b) Banakako tributu-harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkak erabakitzea.

2.- Aldez aurreko erabakiak

Arbitraje Batzorde honek aukera izan du gatazka honetan planteatzen den desadostasunari buruzko iritzia emateko. Zehazki, 6/2018 Ebazpenean (13/2015 gatazka), Auzitegi Gorenaren 1998ko azaroaren 14ko Epaian finkatutako doktrinari jarraikiz (ECLI:ES:TS:1998:6730), langilea atxikita zegoen *lantokia* hartu zuen interpretazio-irizpide egokitzat, nazioarteko uretan nabigatzen duen ontzi bateko tripulatzailleek lortutako etekinen atxikipenak ordainarazteko eskumena duen Administrazioa zehazteko. Irizpide hori berariaz bermatu zuen Auzitegi Gorenaren 2019ko urriaren 4ko Epaiak (ECLI:ES:TS:2019:3144), zeinaren bidez ebazpen horren aurka jarritako auzi-errekurtsoa ebazten baitzen. Hori horrela, ezin hobeto estrapolatu daiteke doktrina hura atzerrian lan egiten duen edozein langileri ordaindutako lan-etekinetera.

Interpretazio horrek aukera ematen zuen Ekonomia Itunaren arau-hutsunea integartzeko, harik eta 2017an Ekonomia Itunean gauzatutako erreformak indarra hartu zuen arte. Erreforma hori 2017ko abenduaren 30ean jarri zen indarrean, eta positibizatu egin zuen irizpide hori termino orokorrageotan,

Ekonomia Itunaren 7.Bat.a) artikuluan sartutako aldaketarekin, zeinaren idazkera gaur egun indarrean dagoena baita.

lido beretik jo dute 21/2022 (35/2016 gatazka) eta 24/2022 (28/2017 gatazka) ebazpenek, zeinak ZAEAk ere aipatzen baititu amore ematea justifikatzeko.

3.- Amore ematea

Interesdunik agertu ez denez —eta, bereziki, zergapekoa bera ez denez azaldu—, eta ikusirik ZAEAk amore eman duela, eta BFari aitortu diola DPISAk ordaindutako lan-etekinengatiko atxikipenak eta konturako diru-sarrerak ordainarazteko duen eskumena, bertan behera geratzen da bi administrazioen arteko gatazka, eta, ondorioz, Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordean abiarazten den prozeduraren xedea gerora galtzea eta artxibatzea ekarri du.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak

ERABAKI DU

1.- Gatazka artxibatzea, ZAEAk amore ematearen ondorioz prozeduraren xedea gerora galtzeagatik, eta onartzea DPISAk ordaindutako lan-etekinengatiko atxikipenak eta konturako diru-sarrerak ordainarazteko eskumenduna dela BFA.

2.- Erabaki hau Zerga Administrazioko Estatu Agentziari, Bizkaiko Foru Aldundiari eta DPISari jakinaraztea.